

Oñatiko EAJ-PNVk dentsitate ertaineko bi bizitegi-eremu berri, lurzoru industrialak mantentzea eta ez murriztea, futbol-zelai berri bat eta igerilekuak gauzatzea proposatu du

- EAJ-PNVk dentsitate ertaineko bizitegi garapena proposatu du Lazarragan, konektibitatea hobetuz eta espazioak birsortuz, eta ULMA Carretillas industria gune berri batera eramanez, gaur egun duen kokapena egoitza gune bihurtuz.
- Jeltzaleek HAPOko lurzoru industrialaren 100.000 m² baino gehiago babestea eskatu dute, lurzoru industrial berria proposatuz.
- Gainera, Korriuenan futbol-zelai eta aire zabaleko igerileku berri bat sortzeko asmoa dute, eta San Martin egoitzaren ondoko espazioa lurzoru soziosanitario gisa zehaztea proposatu dute.

Oñatiko EAJ-PNVren udal taldeak iradokizun eta proposamen dokumentu oso bat erregistratu zuen 2024aren amaieran, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) hasieran onartzeko zirriborroari buruz, gaur egun EH Bilduren Udal Gobernuak izapidetzen ari dena, baina 2025 osoan ez da inolako aurrerapenik egin. Jeltzaleen helburua argia da: herritarren egunerokotasuna hobetzea, etorkizuneko erronkei aurrea hartzea eta udalerriari plangintza errealista, orekatua eta epe luzerako iraunkorra ematea.

Amaia Erostarbe bozeramaile jeltzaleak azpimarratu duenez, “HAPOk Oñatiren norabidea markatuko du hainbat hamarkadatan, eta, beraz, ezinbestekoa da desiragarria ez ezik bideragarria ere aztertzea, etxebizitza eskuratzeko, industria enpleguan, ekipamenduetan eta bizi kalitatean pentsatuz”.

Etxebizitza: aukera errealista gehiago prezioen eskasia eta igoera saihesteko

Udal-dokumentuak 800 etxebizitza berri inguru planteatzen ditu, nahiz eta Planaren azterlanen arabera benetako beharrak 300 eta 400 artean dauden. Gainera, hazkunde horren zati handi bat lurzoru industrial aktiboen eraldaketa konplexuetan oinarritzen da (Berezao – Eroski eta Zugaztieta – Cegasa), dentsitate handiekin, zailtasun ekonomiko eta tekniko handiekin eta urte askotara joko luketen operazioekin.

EAJ-PNVk ohartarazi du, operazio horiek gauzatzen ez badira, Oñatik etxebizitza falta nabarmena izango lukeela datozen hamarkadetan, eta horrek prezioak garestitzea ekar dezakeela, bereziki gazteentzat.

Hori dela eta, talde jeltzaleak bizitegi-eskaintza handitzea proposatu du, bi aukera egingarri eta onuragarriagoekin:

- Dentsitate ertaineko bizitegi-garapena Lazarragan (Garayko behealdean), erdigunearen, Olakuaren, San Lorentzoren eta Errekaldereko arteko hiri-bilbea josteko, gune degradatuak lehengoratzeko, berdeguneak eta ekipamenduak irabazteko eta gaur egun gutxiegi erabiltzen diren Kurtzebide bezalako kaleak hobetzeko.

- ULMA Carretillas industria gune berri batera lekualdatzea eta gaur egun duen kokapena egoitza gune integratu batean eraldatzea, Otadui Apezpikuaren trafiko astuna ezabatuz, zarata eta kutsadura murriztuz, eta plaza Casablancarekin etengabe konektatuz.

Industria: Oñatiko motor ekonomikoaren babesa

EAJ-PNVk bere kezka adierazi du EH Bilduren HAPOk aurreikusten duen lurzoru industrialaren galera garbiaren aurrean, 100.000 m²-tik gorakoa baita, eta ez da aurreikusi murrizketa hori konpentsatuko duen industria espazio berririk sortzea. Egoera horrek hazkundera, berrikuntza eta enpleguaren sorrera muga ditzake, eta hori, Planaren memoriaren arabera, arriskutsua da udalerraren ongizate ekonomikoarentzat. Horregatik, EAJ-PNVk lurzoru industrial berria planifikatzea proposatzen du, aurreikusitako birkalifikazioak indargabetzeko eta lurzoru horren zati bat gaur egun herrigunetik oso gertu dauden eta bizitegi gunez inguratuta dauden industria jarduerak lekualdatzea errazteko, hala nola ULMA Carretillas.

Igerilekuak eta futbol-zelaia

Talde jeltzaleak ekipamenduen sistema orokorrak indartzea proposatu du, proposamen zehatzekin:

- Korriuena baserriaren inguruan lurzoria gordetzea aire zabaleko kirol- eta jolas-ekipamenduetarako (futbol-zelai berria, kanpoko igerilekuak eta aisialdi-guneak), herritarren eskaera errepikatuenetako bati erantzunez.
- Aukera hori irekita mantentzea, baita Betik futbol zelaira bideratzen bada ere, etorkizuneko beharrei ateak ixtea saihestuz.
- San Martin egoitzaren ondoko espazioa lurzoru soziosanitario gisa zehaztea, dagoen egoitza handitzeko espazioa bermatuz edo adineko, mendeko edo desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitza eta zaintza eredu berriak bultzatuz, biztanleriaren zahartze progresiboaren testuinguruan.

Hirigintzako proposamenez gain, EAJ-PNVk premiaz eskatu du Udal Plangintzako Aholku Batzordea berritzeko, indarrean dagoen araudia betez. Era berean, autokontsumoarekin eta jasangarritasun energetikoarekin lotutako etorkizuneko azpiegituren ezarpena argitzeko eta errazteko eskatu du, egungo ingurumen premiekin bat datorren garapena bermatuz.

“Proposamen horiek ez dira osoko zuzenketa bat, ekarpen arduratsu eta eraikitzaile bat baizik, Oñatik HAPO orekatua, errealista eta pertsonengan pentsatua izan dezan”, adierazi du Amaia Erostarbek. EAJ-PNVk elkarriketarako prest dagoela berretsi du, dokumentua hobetzeko eta etxebizitza irigarria, enplegu industrial, zerbitzu onak eta bizi kalitatea bermatuko dituen plangintza bat lortzeko oñatiarrentzat, gaur egun eta etorkizunean.